

ERABAKIA, 2019KO MARTXOAREN 28KOA, KOORDINAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, KIMEP-EN (KAZAKHSTAN-EN) ERASMUS+ DOKTOREGO EGONALDI BAT EGITEKO, 2019-20 IKASTURTEAN.

Joan den 2018ko ekainean Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuak (SEPIE) argitara eman zuen 2018ko deialdian Erasmus+ programako herrialdeen eta herrialde kideen arteko mugikortasunerako finantzabidea lortu zuten unibertsitateen zerrenda.

Deialdi horretan UPV/EHUK finantzabidea lortu zuen, besteak beste, doktorego ikasle bat 2019/20 ikasturtean KIMEP-era (Kazakhstan-era) joatea posible izateko.

Beraz, UPV/EHUK doktorego mugikortasun horretan parte hartuko duen ikaslea aukeratu behar du.

Esandako guztiagatik, UPV/EHUko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz (2017ko otsailaren 3ko EHAA, 24. zk.), SEPIEk eta UPV/EHUK Erasmus+ programako herrialdeen eta herrialde kideen arteko ERASMUS+ 2018 proiektua kudeatzeko sinatutako hitzarmenaren barruan, eta horretarako aurrekontu krediturik badagoenez, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehena.- 2019-20 ikasturtean, KIMEP-en (Kazakhstan-en) Erasmus+ doktorego egonaldi bat egingo duen UPV/EHUko doktorego ikaslea aukeratzeko deialdia egitea, ondoren jasotzen diren oinarrien arabera.

Bigarrena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal zaio Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (123 eta 124 artikulutak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratzen denetik hasita, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1a eta 46.1 artikulua).

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Donostia, 2019ko martxoak 28

Marta Barandiaran Landin
Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea

**2019-20 IKASTURTEAN, KIMEP-EN (KAZAKHSTAN-EN) ERASMUS+
DOKTOREGO EGONALDI BAT EGITEKO DEIALDIAREN OINARRIAK**

1- XEDEA.

Deialdi honen xedea UPV/EHUko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak, Kazakhstan-erako kudeatzen duen nazioarteko mugikortasun 2018 Erasmus+ proiektuan parte hartuko duen doktoregia hautatzea da.

Mugikortasuna honako norako honetarako eskaintzen da: **KIMEP** unibertsitateko CENTRAL ASIAN STUDIES CENTER (CASC), **Kazakhstan**.

2- IKASLEEN BETEKIZUNAK.

2.1.- Doktoregaiak Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du edo bizi den herrialdean errefuxiatu, herrigabe, egoiliar iraunkor, egoitza baimena indarrean duen aldi baterako edo egoiliar edo ikasketa egonaldiako baimena izan beharko du mugikortasunak iraun bitartean eta hartu duen herrialdeko legeria beteaz.

2.2.- UPV/EHUko doktorego programaren batean matrikulatuta egotea, **mugikortasun eskaera egiten duenean eta mugikortasun aldian egon bitartean.**

2.3.- Ingelesa edo/eta errusiera jakitea.

3- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO MUGAK.

3.1.- **Ikasturte bakoitzean mugikortasun bat besterik ezin da egin (egonaldi jarraitu bakarra).** Erasmus+ programaren kasuan ikasleak aukera izango du ikasturte berean ikasketa mugikortasun bat + praktika mugikortasun bat egiteko.

3.2.- Helburuko unibertsitatean, **gehienez, 5 hilabete** pasatu ahalko da. Erasmus+ programak diruz lagundutako egonaldia ere gehienez 5 hilabetekoa izango da.

3.3.- Doktorego ikasketan, Erasmus+ programari esker egindako egonaldiak **gehienez 12 hilabetekoak** izango dira guztira.



3.4.- Egonaldia bukatuta egon beharko da 2020ko ekainaren 30erako.

4- ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA.

Eskaerak aurkezteko epea **2019ko martxoaren 28tik maiatzaren 3ra bitartean** egongo da irekita.

Interesa dutenek, UPV/EHUko Erregistro Orokorreko edozein bulego ofizialetan aurkeztu beharko dute eskaera ("Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa – Ignacio M^a Barriola Zentroa - Donostia, Erasmus+ KA107"-ra zuzendurik eskaera):

Ondoko dokumentazioa aurkeztu behar da:

- 1.- Eskaera inprimakia, osorik beteta.
- 2.- NANaren fotokopia, indarrean delarik. Ez du balio pasaporteak.
- 3.- Hizkuntza ziurtagirien kopiak.
- 4.- Doktoregoan parte hartzeko bidea ireki dion titulazioko espediente akademikoaren kopia.
- 5.- KIMEPeko CASC-en egin nahi den ikerketaren azalpen memoria, eskatzaileak eta matrikulatutako Doktorego programaren koordinatzaileak sinatuta.
- 6.- Doktoregoan matrikulatu izanaren gordekina.
- 7.- Helburuko unibertsitatean egoteko gonbidaberen/onarpen gutuna, CASC-eko zuzendariak edota doktoregaia jasotzeko prest dagoen CASCeko kide den IIPak sinaturik.

OSO GARRANTZITSUA: osorik bete gabe dauden eskaerak ez dira kontuan hartuko.

5- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

5.1.- Plaza hauetarako hautagaitzat joko dira: nazioarteko mugikortasun eskaera egitean UPV/EHUko doktorego programaren batean izena emanda dutenak eta, aldi berean, ingelesa edo/eta errusiera dakitela ziurtagiri bidez frogatzen dutenak.

5.2.- Hautaketarako oinarria merezimendu akademikoa izango da. Beraz, horretarako, kontuan hartuko da mugikortasun deialdian hautaketa egiten denean



ikasle bakoitzak doktoregora sartzeko aurkeztu duen titulazioaren batez besteko nota. Ondoko hauek ere hartuko dira kontuan: eskaeran sartutako azalpen memoria, egiaztatutako ingeles edo/eta errusiera hizkuntza maila eta egoki jotzen diren bestelako merezimendu gehigarriak. Berdinketarik badago, diru baliabide gutxien dituzten ikasleek izango dute lehentasuna.

6- BALORAZIO BATZORDEA.

Jasotako eskaerak ebaluatzeko batzordea honako pertsona hauek osatuko dute: Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariak, Nazioarteko Harremanetako Zerbitzuko buruak eta UPV/EHUko teknikari batek, batzordeko idazkari lanak egingo dituenak. Balorazio Batzordea KIMEP-CASceko zuzendaritzarekin harremanetan jarri ahal izango da beraien ikuspuntua ezagutzeko.

7- ERABAKIA.

Deialdiaren esleipen ebazpena Nazioarteko Harremanetako webgunean argitaratuko da (Erasmus+, herrialde kideak).

8- LAGUNTZA EKONOMIKOA.

Beka kontzeptu gisa lortuko den zenbatekoa honako hau izango da: 700 euro hilean, 5 hilabetez gehienez. Gainera, 820 euro lortuko dira bidai gastuetarako.

"CERTIFICATE OF ATTENDANCE" delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hilabeteak egiaztatze eta, kasuan kasu, Nazioarteko Harremanetarako Bulegotik eska daiteke egiaztatu ez diren egunengatik jaso diren diru laguntzen zenbatekoa itzultzeko.

9- ERASMUS IKASLEAREN BETEBEHARRAK.

9.1.-ERASMUS+ mugikortasun beka baten onuradunak "ERASMUS ikasle gutun"ean ezarritako eskubideak eta betebeharrak dituzte eta harrera unibertsitateko arauak bete beharko dituzte han egon bitartean.

9.2.-Helburuko unibertsitatean onar zaitzaten egin beharreko izapide guztiak zure erantzukizuna izango dira. Oso garrantzitsua da unibertsitate bakoitzak onarpen eskaerak aurkezteko jartzen dituen epeei begira adi egotea (batzuetan sarean egin behar izaten da); izan ere, unibertsitate gehientsuenek ez dituzte onartzen epez kanpo iristen diren eskaerak.



Era berean, bekadunaren erantzukizuna izango da unibertsitate horretan egingo den egonaldirako ostatu izapideak egitea.

Doktoregaiak ez du tasarik ordaindu beharko helburuko unibertsitatean, jatorrizko unibertsitatean ordaintzen baitu. Hala eta guztiz, helburuko unibertsitateak diru kantitate txikia eskatu ahal izango dio aseguruaren, ikasleen sindikatueterako afiliazioaren edo material ezberdin erabileraren (fotokopiagailuak, laborategietako produktuak eta abar) gastuei aurre egiteko, bertako doktoregaiari eskatzen zaien berbera izango dena.

9.3.- Mugikortasuna lortzen duen ikasleak, bidaiatu aurretik, bere tesiko zuzendariarekin **Learning Agreement for Doctoral Studies** delakoa izapidetu beharko du. Bertan jasoko da zein diren helburuko unibertsitatean egingo diren jarduerak eta UPV/EHUko zeinekin baliozkotuko diren. Dokumentu honek, loteslea izan dadin, bi unibertsitateen eta doktoregaiaren baimen sinadurak izan beharko ditu.

9.4.- Helburuko unibertsitatean ikasketa errendimendu ona egiaztatu beharko da.

9.5.- Finkatutako datan joan beharko da helburuko unibertsitateara. Agertu ezean, doktoregaiak mugikortasunari uko egin diola ulertuko dute han. Berehala eman beharko zaio egoera horren berri Errektoreordetzari. Izan ere, horrela egin ezean, baztertuta geratuko da UPV/EHUk gerora egingo dituen mugikortasun programen deialdietako hautapen prozesuetan. Mugikortasunaren egonaldi garaia edo lauhilekoa aldatuz gero, eta horrek eskainitako iraupena aldarazten badu, ezinbestekoa izango da Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren eta Master eta Doktorego Eskolaren oniritzia; betiere, eskaeraren arrazoiak aztertu ondoren emandakoa. Oniritzirik gabe aurrera eginez gero, 9.10. atalean aurreikusitako egoeran egongo da doktoregaia.

9.6.- Helburuko unibertsitateara iritsi aurretik, istripuetarako, aberriratzeko, osasun lekualdakentzako eta gastu medikuetarako aseguru gehigarri bat egin beharko da, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko

9.7.- Mugikortasuna gauzatu baino lehen, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak eskainitako Erasmus+ diru laguntzaren hitzarmenaren kopia sinatua eta aseguruaren kopia entregatu beharko dira.

Gainera, finkatutako epeetan, egonaldia eta berorren iraupena egiaztatu beharko dira, egonaldi hasierako (*Certificate of arrival*) eta amaierako (*Certificate of Attendance*) egiaztagiriekin. Helburuko unibertsitateak behar bezala sinatu eta zigilatu beharko ditu bi horiek.



9.8.- Hala eskatzen duten herrialdeetan egonaldia egiteko edo bertara sartzeko beharrezkoak diren bisatuak eskuratzeko izapideak egin beharko ditu doktoregaiak; eta joan aurretik egin beharko da halaber, helburuko unibertsitatean sartu ondoren herrialde horretan egoteko beharrezkoa den beste zeinahi administrazio izapide. Ez da Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren erantzukizuna izango izapide hori egitea ahaztu zaiola-eta doktoregaiak mugikortasunerako aukera galtzen badu.

9.9.- Adierazitako hilabeteak baino egonaldi luzeagoa egin nahi bada, Erasmuseko koordinatzaileen baimena beharko da (jatorrizkoarena eta helburuko unibertsitatekoarena). Egonaldia soil-soilik luzatuko da ikasketa kontratuan (*Learning Agreement for Doctoral Studies*) aldaketak egonez gero. Eta orduan ere, mediku aseguru gehigarriaren indarraldia luzatzen dela dioen agiriaren kopia aurkeztu beharko da. Egonaldi luzapen hori ez da izango, inola ere, automatikoa; eta ez du ekarriko, luzapeneko hilabetei dagokien finantza laguntza jasotzeko eskubidea.

9.10.- Betebehar hauek guztiak inolako azalpenik gabe bete ezean, hainbat ondorio etor litezke: beka ezeztatzea, ikasketa kontratua etetea, finantza hitzarmena ezeztatzea (eta ondorioz, aurretik jasotako finantza laguntza guztia itzultzeko derrigortasuna) eta Errektoreordetzatik gerora sustatutako zeinahi mugikortasun programatako hautapen prozesuetatik kanpo geratzea.

9.11.- Aurreko atalean (9.10.) azaldutakoa itzultzeko betebeharra batere edo partzialki bete ezean, doktoregaiak beste matrikula batzuk egiteko debekua eta ikasketa espedienteari buruzko kalifikazioak, informazio oharrak eta tituluak jasotzeko debekua izango du, harik eta betebeharra gauzatu arte. Era berean, ezingo du gozatu UPV/EHUK eskaintzen dituen gainerako zerbitzuez ere.

10- INFORMAZIO GEHIGARRIA.

Deialdi honi buruz informazio gehiago lortu nahi izanez gero edota KIMEP/CASC-ekin harremanetan jartzeko laguntza behar izanez gero, honako helbidera idatzi edo telefono honetara daiteke: pc.international@ehu.eus 943 015127.